







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %3,6 egin zuen behera uztailean, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Sektoreka adierazita, industrian %3,7 eta zerbitzuan %5,6 jaitsi zen; bizitegietan, berriz, %0,3 igo zen.

Industria alorrean uztail arteko kontsumo metatuari dagokionez, iazkoaren azpitik segitzen du. Zementuan kontsumoak %28,5 egin zuen behera, itsas eraikuntza eta konponketan %20,9, kautxuaren eratorrietan %8 eta beiragintzan %7,8. Siderurgian eta galdagintzan, ordea, gora egin zuen (%3,2).

Gas naturala

Uztailean gas naturalaren guztizko kontsumoak %1,9 egin zuen behera, 2012ko uztailean izandako kontsumoarekin alderatuta. Zentral termikoena %4,7 jaitsi zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena %0,5.







Uztail artean metatutako kontsumoak %4,8 egin du behera, 2012ko epealdi berarekin erkatuta (-%15,7 CCTT-n eta -%1,6 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Ekainean, garraioan erregaien kontsumoa %1,8 jaitsi zen, 2012. urteko hil berean izandakoaren aldean. Gasolinarenak %14,9 egin zuen behera eta A gasolioenak, berriz, %0,1 egin zuen gora.

2013ko lehen sei hilean kontsumo metatua %2,1 igo da, iazkoarekin erkatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %9,2 egin zuen behera eta A gasolioenak, aldiz, %3,6 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Uztailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 90,5 milioi kupel izan zen (2012ko uztailearen aldean, %1,4 igo zen). Hartara, urtebetea, Europar Batasunean %4,9 egin zuen behera kontsumoak, 13,3 Mbd kantitatera iritsiz; AEBetan, ordea, %2,2 igo zen, eta 19 Mbd kopuruan kokatu zen. Txinan %2,7 egin zuen gora, eta 10,6 Mbd kontsumituzera heldu zen.

Munduan, azken sei hilabetea, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %0,8 igo da, oro har, eta %5,9 Txinan; Europar Batasunean eta AEBetan, berriz, %4,2 eta %0,9 jaitsi da, hurrenez hurren.

Energiaren kontsumoa Espainian

Gas naturalaren kontsumoa %10,5 jaitsi zen Espainian, uztailean, 2012ko hil horretan izandakoaren aldean; eta urtearen hasieratik metatutakoak %9,1 egin du behera.



Elektrizitatearen kontsumoak, ordea, 2012ko uztailean izandakoaren maila bertsuari eutsi zion, eta urteari dagokion metatua %3,5 jaitsi da.

Errepideetan erregaien kontsumoak %4,3 egin zuen behera maiatzean, 2012ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %4,7 jaitsi zen, eta %4,2 gasolioen kasuan. Urte mugikorrari dagokion kontsumo metatua %5,9 egin du behera (%7,5 gasolinena eta %5,5 gasolioena).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoaren kontsumoak %5,8 egin zuen behera maiatzean, eta urteari dagokion metatua %7 jaitsi da.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa




Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 107,7 \$ (82,4 €) izan zen uztailan. Urte mugikorren batez besteko prezioak %1,6 egin zuen behera (%0,1 eurotan).

Gas naturalaren prezioa

Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %5,4 igo zen ekainean, 2012ko hil berean izandakoarekin erkatuta, eta 25,4 €/MWh izan zen. Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %2,7 egin zuen behera ekainean, iazko hil berean izandakoarekin konparatuta, eta 27,7 €/MWh iritsi zen.





Ikatzen prezioa

Ekainean, ikatzen prezioa 74 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %19,1 jaitsi da.

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %1,7 egin zuen gora uztailan, urtebete lehenago hil horretan izandakoaren aldean, eta 51,2 €/MWh iritsi zen. CESUR oinarritzko prezioa uztailan 47,9 €/MWh izan zen, %14,8 jaitsiz, 2012ko epealdi horretan izandakoarekin erkatuta.



Erregaien prezioa

EAEn, ekainean, gasolioaren prezioa 1,3 €/l izan zen eta gasolinarena 1,39 €/l. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %2 eta %3,9 igo ziren, hurrenez hurren.

CO₂-ren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 4,2 €/t izan zen ekainean, eta 2012ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %49,2 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAREN datuetan oinarrituta.